

Etxe berriak

Gaurko etxeak eta etorkizunekoak ez dira berdinak. Artikulu honetan etorkizuneko etxeak nolakoak izango diren azaltzen da. **Irakurri.**

ETXE BERRIAK

Bidetelefonoa izango da etxe hauetan. Alkandora bat erosi nahi baduzu, neurrira egina lortuko duzu. Dendan zure neurriak izango dituzte. Etxeko bidetelefonoan tela klase guztiak azalduko dira. Bat aukeratu eta kitto!

Etxe berrian lorategia izango duzu. Ureztatze automatikoa martxan badago, lurrak busti egingo dira. Baina bat-batean euria hasten badu, lasai! Ureztatze automatikoa bere kasa geldituko da.

Komunean sartu eta baskularen gainean jartzen bazara, baskulatik ahots bat aterako zaizu: "bi kilo gizendu zara", adibidez. Baskulak hori esaten badizu, beste zerbait ere esango dizu: "Zuretzat pisu egokia 70 kilo dira", adibidez. "Oraindik bost kilo galdu behar dituzu". Kirola egin beharko duzu, beraz.

Dena den, ez dago arazorik. Etxe hauek gimnasioa ere izango dute.

Jan behar duzunean, hozkailua hutsik badago, pantaila bat daukala ikusiko duzu. Pantailak esango dizu janaria falta dela.

A. Galderaren erantzun egokiak aukeratu beheko taulan.

	BAI	EZ
Erosketak egiteko bidetelefonoa, dendekin zuzenean konektatzen dena		
Baskula ahosduna: berak esango dizu zein den zure pisua eta zenbat kilo Galdu ala irabazi behar dituzun.		
Lisatu behar ez diren alkandorak.		
Txakurra, genetikoki aldatuta. Ohea egiten ere jakingo du.		
Robota, arropa neurrira egiteko.		
Pantaila bat daukan hozkailua. Pantailak esango dizu janaria falta dela.		
Ureztatze automatikoa lorategian. Euria hasten badu, gelditu egingo da.		
Gimnasioa, kirola egiteko.		

B. Beheko esaldietan oraingo etxeak, aspaldikoak eta etorkizunekoak deskribatzen dira.

Esaldi guztiek egitura bera dute:

Noiz+etxe+Zer+aditza+Zertarako.

Adibidez: *Orain etxeetan **hoz**kailua **egoten da**, janaria gordetzeko.*

Esaldiak osatzeko jarri: Zer(adibidean **hoz**kailua) eta aditza (begiratu denbora, orain, lehen gero; begiratu singularra, plurala. Abibidean **egoten da**)

1. Lehen, etxeetan (*lastozko koltxoi / egurrezko platerak*) bat (*egoten ziren / egoten zen*) familia guztiak han lo egiteko.
2. Orain, etxeetan (*beheko sua / koloretako telebista*) (*egongo dira / egoten da*), familia guztiak ikusteko.
3. Laster, etxeetan (*bideotелефonoa / internet*) (*egongo da / egoten dira*), erosketak etxetik mugitu gabe egiteko.
4. Orain, etxe askotan (*internet / bonbilla ekologikoak*) (*egongo dira / egoten da*), munduko albiste guztiak eskura izateko.
5. Lehen, etxeetan (*lastozko koltxoi / beheko sua*) (*egoten zen / egoten ziren*), jatekoa prestatzeko eta etxea berotzeko.
6. Hemendik aurrera, etxeetan (*etxetresna inteligenteak / egurrezko platerak*) (*egoten dira / egongo dira*).
7. Lehen, etxeetan (*koloretako telebista / egurrezko platerak*) (*egoten zen / egoten ziren*), janaria zerbitzatzeko.
8. Orain, etxe askotan (*bonbilla ekologikoak / koloretako telebista*) (*egongo dira / egoten dira*), gutxiago kontsumitzeko.

Erantzunak

A.

Bai Bai Ez Ez Ez Bai Bai Bai

B.

- | | |
|-----------------------------|--------------|
| 1. lastozko koltxoi | egoten zen |
| 2. koloretako telebista | egoten da |
| 3. bideotелефonoa | egongo da |
| 4. internet | egoten da |
| 5. beheko sua | egoten zen |
| 6. etxetresna inteligenteak | egongo dira |
| 7. egurrezko platerak | egoten ziren |
| 8. bonbilla ekologikoak | egoten dira |